

Etxeko txirrindulari gazteen dohainak gurpil gainean

Ginkana egin zuten atzo
II. Kirol Astearen barruan ▶ 6



Harpidedunei banatua ▶ Igandea ▶ 2006-05-28 ▶ IV. urtea ▶ 897. zenbakia ▶ www.tolosaldeko-hitza.info

Dorleta Zorrillak irabazi du Zizurkilgo II. Sari Nagusia

TXIRRINDULARITZA ▶ Belca taldeko Irene San Sebastian kadete tolosarra izan da eskualdeko lehena, eta bere mailako lasterketa irabazi du ▶ 6



Podium nagusia; ezkerretik: Fernandez, Zorrilla eta Telletxea . N. URBIZU

I. GARCIA



«Heldugabe dago Udalak aurkeztutako proiektua»

TOLOSA ▶ Ehunka lagunek babestu zuten atzo Gerontologikoaren aldeko plataformak zentro berria eskatzeko deitutako manifestazioa ▶ 7

TOLOSA ▶

Tolosa Bizirik: «Hemen gaude eta bagatoz»

'Apartheid'-a salatu du jendaurrean ▶ 5

JESUS ALTUNA ▶ ARKEOLOGOA

«Lanak berak nahiko gantxo badu lanean jarraitzeko»

Erretiratuta ere, historiaurrea aztertzen jarraitzen du berastegiarrak; Aranzadi zientzia elkarteak omendu berri du ▶ 4-5



J. SAIZAR



TOLOSALDEA
GOIMAILAKO L.H. INSTITUTUA

- ▶ Lanbide Heziketako Ikerketa eta Berrikuntzarako Institutua
- ▶ 2001ean, Eusko Jaularitzako Zilarrezko "Q" saria
- ▶ 6 urtez, ISO 9002 ziurtagiriarekin

Goi-mailako zikloak: Euskaraz

- Mekanizazio Bidezko Produkzioa
- Eraikin eta Prozesu-Instalazioen Mantenimendua eta Jartzea
- Metal-Eraikuntza
- Erregulazio eta Kontrol-Sistema Automatikoak
- Administrazio eta Finantzak
- Informatika- Sistemaren Administrazioa

IZEN EMATEAK / AURREMATRIKULA:
EKAINAREN 1etik 7ra



Tfno.: 943 65 11 47 / 943 65 06 64
Fax: 943 65 18 56
idazkaritza@tolosaldea.com
www.tolosaldea.com
Santa Luzia, 17 • 20400 TOLOSA



TOLOSALDEKOHITZA.
INFO ▶Zergatik da
garrantzitsua
zuretzat HITZA
ordaintzen
jarraitzea?

Nire ustez ordaintzen jarraitzeak, egunkari honi laguntza eskaintzeaz gain, euskarari ere ikaragarriko bultzada ematen dio, asko baikara TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA irakurtzen dugunok! Beharrezkoa da euskal kulturak indarra har dezan. Eskerririk asko eta jarraitu horrela urte askoan! Sakanatik! (aupa leitze).

Euskaraz kalitatez eginiko produktua da, eta badirudi fabore bat egiten diegula ordaintzen. Bertan lanean dihardutenen zerbitzua ordaintzen dugu, eta bidezkoa iruditzen zait. Beste egunkariak erosterakoan ez dugu dudan jartzen ordaintzea, eta zergatik bai HITZAREKIN? Zorionak eta eskerrik asko gure hizkuntzaren alde egiteagatik.

Banaketa zerbitzua dezentte hobetuko nuke nik, askotan ez baitugu behar bezala jasotzen gure etxean. Baina badirudi gauzak hobetuko direla laster. Hori pentsatu nahi dut, behintzat. Bestela, arrazoi du aurrerakoak. Beste edozein egunkari, aldizkari edo bestelako jaso nahi badugu, ordaindu egiten dugu, ezta? Badirudi HITZA ez dugula behar bezala baloratzen. Eta asko da eskualde honetan euskararen alde egin duena. Animo!

Euskararen normalizazioaren bidean urrats garrantzitsuak egin dituen proiektua da. Eta diru kopuru handia behar du aurrera egiteko: langileak, inprenta... 50 euro urtean ez da dirua. Euskarak hori eta gehiago merezi du!

Zerbait nahi duenak ordaindu egin behar du. *Diario Vasco* ordaintzeagatik inor ez da kexatzen. Eta HITZA doan nahi dugu, eta etxean, gainera. Nik aukeran nahiago dut HITZA ordaintzea: euskaraz delako, hobea delako eta, gainera, askoz ere merkeagoa!

UZTURRETIK ▶ AMAIA AGIRRE



Ez naiz olerkaria baina hitza dut lanabes. Ez naiz tolosarra baina bertan jaio eta bizi izan naiz. Halaber, ni ere Agirre naiz, Lizardi maitea. Eta nik ere mindut, Lizardi. Min etsia. Etsituaren mina.

Inoiz ez nintzen epaitegi batean izan. Bizitzak uneoro epaitzen gaitu, baina erruki ditut errugabeak.

Lan istripu bat zela medio, bi urte eta erdi

egun horren zain eman ondoren, iritsi zen oraindik ere loa galeraztan digun hitzordua. Hitz egiteko ordua. Aurrera edo atzera egiteko ordua. Itxaropen handirik gabe joan ginen, egia esan.

Etexko bati babesa ematearren joan nintzen. Epaitegiak txingurritegia zirudien. Batzuk lasai eta besteak herio batean. Baina denak alde batetik bestera. Egonezina nagusi. Salataria zen hango isiltasun behartua. Hogei minututan erabaki zen nire gertuko horren etorkizuna. Hilabete barru erantzuna. Irribarrerik egiten ere jakingo ez duen epaile haren aurrean inpotentzia sentitu nuen aurka ari zen abokatuak hitz egiten zuen aldiro. Iraingarria zen. Lan istripu bat ez da guk nahi dugulako gerta-

tzen. Deitu gabe etortzen dira zorigaitzak. Mingainari bitan kosk egin behar izan nion pelikuletako epaiketetan altxatzen eta oldartzen diren bezala ez asaldatzeko. Mindut bihotzean, Lizardi. Gure etxeko epai-tuak beste nonbait du oraindik mina. Abokatu bakoitza bere gurdiari tiraka. Mediku bakoitza bere anestesia edo pozoia sartu nahian. Justizia egitea baino ez dugu eskatzen. Epaiketa agian galdu egingo dugu, baina juizioa ez. Ezer ez omen dago gure esku. Esku bateko lexioa tartean. Eskubiderik ez, ordea, guk ezer erabakitzeke. Hitzik ere egin ez zuen beltzeko gizon lehor eta zurrun haren esku dago gure etxekoaren geroa. Zorte on epaiketaren baten zain zaudeteno!

Juizioa

ASTEKO IRUDIA ▶



ESTI EZEIZA



«Euskal Herrian inoiz egin den sega ikuskizunik handiena»

Erredakzioa ▶ «Euskal Herrian inoiz egin den sega ikuskizunik handiena». Halaxe definitu zuten Almitza Sega Elkartekoek igandean Tolosan antolatu zuten I. Taldekako Sega Lehiaketa. Eta ikuskizun horri jakinminez erantzun zion jendeak: 1.000 lagun inguru elkartu zen Iurreamendiko zelaietan. Euskal Herriko zein Katalu-

niako 29 laukote aritu ziren lehian, tartean eskualdeko ugari. Gizezkoen mailan, Jokin Garmendiak, Iker Garmendiak, Julian Bereziartuak eta Arkaitz Arteagak osatutako Baliarraingo taldea izan zen onena (2'41"); nesketan, Arano Idiazabalgoek irabazi zuten (3'39"). Argazkian, Amasakoak, lanean. ESTI EZEIZA

ESANAK ▶



MIGUEL MARI ELOSEGI
BIOLOGOA

«Hartzari buruz asko dakigu, baina gehiago da ez dakiguna»

«Animalia berezia da. Askok gizakiarekin duen antza azpimarratu izan dute; arbasotzat jo izan du gizakiak hartza»

«Pirinioetan egoerak ez du batere itxura onik. Bertakoek ez badute kontserbatu nahi, ez dago modurik. Administrazioak argi esan behar die artzainei lagundu nahi dituela. Eta horrelakorik ez du egin. Artzainek ez dute babesik sentitu»

«Hartza izan daiteke aurrera egiteko modu bat Pirinioetako artzaintzat. Horretarako, administrazioak konpromisoa hartu behar du artzainak laguntzeko. Hartzak galtzeak ez du hondamendi ekologikoa eraginen, baina artzainak desagertzen badira, eragina oso handia litzateke, ekologian eta kulturaren»

«Isileko ehizak egin dio kalte gehien»

'Berria' (2006-05-18)

IRITZIA ▶ ITZIAR EIZAGIRRE (ERNIOBEA UDALTALDE 21-EKO KOORDINATZAILEA)

Parte-hartzea, garapen iraunkorrerako bidea

Garapen iraunkorrak eskaintzen duen gizarte, ingurumen eta ekonomi eredu berritzailea egun ez da oraindik barneratu, nahiz eta bide horretan urratsak eman diren. Hainbat eta hainbat herritan giza ekintzek sorrarazten dituzten arazoei irtenbideak planteatzeko ekintza eta ahalegin anitz nabarmentzen ari dira. Hala ere, inspirazio iturri badira ere, garbi izan beharko genuke garapen iraunkorrerako bidea ez dela bat bakarra. Konplexutasunaren kudeaketa eredu berri honetan sakondu nahiez gero, tokian tokiko irtenbideak aztertu eta abian jarri beharko ditugu. Azterna guztiak zera adierazten dute, iraunkortasunak aldaketa sakonak eskatzen dituela, gure bizimodua eta gizarte antolaketa orokorra erroz aldatuko dituzten horiek; baina, beti ere, gizarte eragileen onarpen eta esfortzu zabalarekin.

Ingurumenaren eta iraunkortasunaren parte-hartzea era ezberdinetan definitua izan da, baina bertan landu nahiko genukeena ondorengoa litzateke. Hain zuzen ere, gizartearen arazo ezberdinei iraunkortasun irizpide zuzentzaileak, prebentzioa balorazioa eta pertsonen gaiaren inguruko ezagupena eta inplikazio zuzena laburbiltzen duen parte-hartze egoki bat lantzea litzateke helburu.

Ezaguna da ere ez dagoela parte hartze eredu bakarra, baizik eta instituzioekin interesaturik dauden herritarrek era eta gradu ezberdinetan inplikatzeko eskaini diezaiekete. Alegia, informatu: taldeek eta pertsonen proposaturiko ekintzei buruzko informazioa jasotzen dute, baina horiek aldatzeko aukera gutxi dago. Iritzia eskatu: herritarrek eta bertako gizarte eragileek ekintza bati buruzko iritzia ematen dute, eta iritzi hori aztertzen da ondoren kontutan hartzen delarik. Elkarrekin erabaki: arlo zehatz batean interesa dutenek egitasmoan parte hartzeko gonbita jasotzen dute, gaia aztertu, eztabaidatu eta, azkenik, erabakian parte hartzen dute; orokorrean egitasmoari hasiera eman dionak gaiaren interesatuak daudenei parte hartzeko dauden mugarriak azaltzen dizkie behin betiko erabakian izango duten eragin ahalmenearekin batera. Elkarlana: erabakia hartzeko prozesuaz gain, erabakitakoan ekintza garatzeko ere parte hartu izan dutenen artean ardurak banatzen dira. Denek konpartitzen dituzten interesak bultzatu: herritarrek, giza eragileek eta instituzioek erabakiak hartzeko prozesuan eta ondorengo garapenean inplikatzeko lortzen dute.

Aurrekoaren harira parte hartzeko gradu ezberdinak daude, beti ere guztiak par-



te-hartze prozesu bezala onartzen diren, bide batez egitasmoak eta prozesuak esanguratsuki aberastuz. Beraz, ondo bideratutako hainbat egitasmoen azterketaren ondorioz parte-hartzearen onurak nabarmenak direla inork ez du zalantzan jartzen. Parte-hartzeak arazoei irtenbide egokia ematen laguntzen du: parte-hartzea erantzunen eraginkortasuna bultzatzen duen ideia zenbait puntutan oinarritzen da; alegia, beharrei egokitutako diagnosi hobeak lortzen dira, irtenbideen hausnarketa aberatsagoak lortzen dira, baliabideak gehiago izan litezke pertsona, talde eta material gehiago barneratzeko aukera ematen delako eta, azkenik, gehienetan herriak berak gizarte eragile eta bertako instituzioekin batera beraien esku izaten dutelako —ez beti— bertan sortutako arazoaren konponbidea. Parte-hartze prozesuak gizarte integratzea lortzen dute herriaren bertakotzea bultzatuz eta egituratuz: parte-hartzea aukera ederra izan liteke iraunkortasunaren inguruko gizarte taldekatzea lortzeko, era horretan helburuak, esperimentuak eta ardurak partekatuzko, komunitate bizia, integratzailea eta arduratsua baten bitartez etorkizuna denon artean eraikitzeko. Parte-hartzeak pertsonen eta beraien ingurumenarekin duten lotura eta parte-izate zuzentza garatzen du. Bestalde, teknokratikoak diren tendentziak zuzentzen ditu eta herritarren beharrak kontutan hartzen ere laguntzen du. Gatazkak, larriuneak edo arazoak alde aurretik sumartzeko ere egokia izaten da. Herritarrek erabakiak zergatik hartu diren hobe ulertzeko ere baliagarria izaten da, eta hartu diren horiei zilegitasuna eta egiazkotasuna ematen die.

Gizarte kohesioa eta gizarte kapitala indartzea, herri eta norbanakoen berezko kultur erreferentziak indartzea hau guztia

ingurumen osasuntsua zainduz, horietarako dira gobernu eta herritar arduratsuek etorkizunera begira egin diezaketan inbertsioa. Hau guztia udal mailan laburbiltzen duen egitasmoa Tokiko Agenda 21a da. Bere esku, udal mailan ematen diren parte-hartze prozesuak indartzen ari dira, parte hartu nahi duenari bidea —gradu batean edo bestean— irekiz. Ez da oraindik erabat sendotu, lehen urratsak besterik ez dira eman, zailtasunez, mantso baina aurrera begira. Agenda 21a iraunkortasunerako lanabes praktikoa bikaina da, antolaketa horizontalerako irizpideak aplikatzen ditu. Bere aurkibideak finkatzen dituen lau atal handiei jarraiki, ardatzak ikusten dira: dimentsio sozial eta ekonomikoak —pobrezia erazteko—, garapenerako baliabideen kontserbazioa —herrialde aberatsuetako kontsumo joera iraungaitzak salatuz— eta kudeaketa eta eragile nagusien eginkizuna indartzea —kontzientzia hartzeko eta konponbiderantz abiatzeko—.

Globalean pentsatu eta tokian bertan jardun eta tokioaz pentsatu, banaka jardun leloek inplikazio guztien barneratzea behar dute. Tokiko Agenda 21a lanabes bat da, eta bere helburua norbanakoen zein gizartearen aldaketak eragitea da, arlo ezberdinetako politiketan herritarren iritzia eta parte-hartzeari bidea irekiz.

Udaltalde 21 Ernioaldeko udalek (Aduña, Anoeta, Asteasu, Hernialde, Irura, Villabona eta Zizurkil) Tokiko Agenda 21aren irizpideak eta metodologia lantzen ari dira, pixkanaka baina gogoz, egunero suertatzen diren oztopo eta aukerekin ikasten eta tokian tokiko herritarrei parte hartzeko aukera berriak eskainiz, etorkizuna denon esku baitago eta elkarlana eskatzen duen egitasmo berri honek denon ardura eta parte-hartzea eskatzen du.

iragarki laburrak ▶

<p>LANPOSTUAK Gidariak. Udaletan eta Eusko Jaurlaritzan laster lanpostuak B1, BTP eta C1. 943 31 37 82. Garbitzaileak. Lanpostu libreak: Eusko Jaurlaritza, ikastetxeak, ospitaleak. Informazioa 943 31 37 82. Mantenimendu Ofiziala. Ospital, egoitza eta udalberako.</p>	<p>Informazioa doan. 943 31 37 82. Gipuzkoako Foru Aldundiak behar ditu: sukaldari laguntzaileak, obra zaintzaileak, gidariak, zaintzaileak, basozainak, laborategi teknikariak, garbitzaileak. 943 31 37 82. Osakidetzak. Lanpostu libreak. Teknikariak, alborategi laguntzaileak, erizain laguntzaileak,</p>	<p>zeladoreak. Informazioa doan. 943 31 37 82. Langileak. Igeltseroak, elektrizistak, iturginak, lorezainak, palistak, gidariak. Udaletxeetarako lanpostu libreak. Informazioa doan. 943 31 37 82. Administrari laguntzaileak. Beasain, Bergara, Soralue, Mutriku, Zizurkil, Mendaro eta</p>	<p>Anoetako udalek administrari laguntzaile lanpostuak bete behar dituzte. Informazioa doan. 943 31 37 82. Aireportuak. Lanpostuak betetzeko: bezeroari arreta, aireko kontrolatzaileak, suhiltzaileak, mantentze-lanak. Informazioa doan. 943 31 37 82.</p>
---	--	--	--

JESUS ALTUNA > ARKEOLOGOA

«Ekain margotu zuenak ez al zuen ezer gehiago margotu? Zaila da hori azaltzea»

Unibertsitate irakasle gisa erretiratu ondoren, historiaurrea aztertzen jarraitzen du berastegiarrak; Ekaingo erreplika 2007ko bukaeran irekitzea espero du

JOSUEMI SAGAR

Aranzadi zientzia elkarrekin. Jesus Altuna Eratze (Berastegi, 1932) omen du berri du bizitzan zehar egindako lanagatik. Historiaurrea aztertu du bereziki, eta arkeologian espezializatu da. Bere lan mahaietan, bere lan tresnen artean izan da Heratzeak, bere lanaz eta bizitzaz solasatzen.

Zer moduz hartzen dira sariak?
Oso Gogo oner. Ez dituz berak nahiko gantxo baduelako lanean jarraitzeko. Baina sari horiek zure lana bakarrik egitea da eta ongietorriak izaten dira.

Orain zertan ari zara?
Unibertsitatean erretiratu nintzen duela hiru urte, 70 urte bete nituenean. Eta orain denora asko daukat. Zerbait gauza egiten ari naiz. Laster argitaratuko ditugu Zarautzen azalduko aztarnategi baten ondorioak. Aitzabaitzen egindako lanarekin ari naiz batzere, eta hor urte mordoak pasatu dugu, hamar bat urte indusiaten, eta orain ari gara handik ateratako guztiz aztertzen. Talde interdisziplinari bat osatu dugu. Hemenaldi lau urteara bango garakari Buruzko lan garrantzitsuak argitaratuko dugula uste dut. Han gizaikua duela 30.000 urte hasi zen bizitzan, datarioak baditugu, eta orain dela 10.000 urte ari jarraitu zuten bizitzan. Glaziazioa bukatu zenean handik beste norabaitera ateratu zuten. 20.000



JOSUEMI SAGAR

urte horietako kultura zerranda handia dago bertan. **Tolosaldean zer dugu kobazulo aldetik?**
Sorginzulo dago Belauntzan. Berrobi aldera goazela errepide zuzenaren bukaeran ezkerretan, gatai baten harrobia zen tokian. Sekulako apaingailu pila agertu zen, historiaurrekoak, brontze garaioak, orain lau bat milioi urtekoak. Harrobiak botatako zabortegian. Bestela trikuharri batzuk badaude Uzturirik Berastegiko doan mendierro horretan, Belebaitan, oso politik. Beste bat

Urdeletarren bertan, Telesforo Aranzadi aztertu zuen hori. Beste kobazulo batzuk ere badaude, baina ez dute ezer berezirik historiaurre aldetik. Karritz asko ere ez dago Tolosaldean, eta hor sortzen dira kobazuloak. Beno, Erton bai. Alkiza aldera badaude kobazulo batzuk Brontze garaian erabili zirenak. **Leku horietan hasi al zinen arkeologia munduan?**
Ez. Barandiaran Iparraldetik hona etorri zenean, 1958an, indusketak egiten hasi zen Aranzadien Lezetikinen eta Errenterian Aitzabaitzen. Madrilen ari nintzen karrera ikasten eta harengana joan nintzen ni. **Eta zer esan zintu?**
Barandiarnek tresnak aztertzen zuten eta hezururrekin zuten egiten ez zekien, aztertu gabe uzten zituzten. Eta nik Biologia ikasten nuen, nik aztertzeko esan zidan. Paleontologia aldetik hasi nintzen lanean. Debasiko Urtegan eta Ermitan eta Urnieakoa Martzulo ere asko ibili nintzen hasiera baita. Koba horien gutxienez hezurrik aztertu nituen, eta horrek osatu nuten nire tesi doktora.

Hainbeste urte lan honetan aritu ondoren, zein izan da aurkikuntzarik handiena?
Lezetikiko garrantzi handikoa izan zen, batez ere aspaldiko gauzak atera zirelako. Halako seriazio edo geruza zerranda. Oso animalia haragarraren hezurrak agertzen dira, gutxiatan azaltzen direnak; hartzak, lehoiak, hienak, pantarrak... Eta gero opari handia izan zen Ekain. Beno, Altzerri ere bai, bere garaian. Bi horietan buruz lan asko egin dut. **Eta zein izan da horietatik hartutako lezioa?**
Garai bateko bizidunak. Hemenak informazio handia ematen dute. Alde batetik, garai hartako ekonomia adierazten dute: elute ekonomia bakarrik ote zen edo abeltzaintza hastakoa ote zen. Marzuloan giza hezurdura oso aurkitu genuen lurperatuta eta ondoren zakur baten eskeleto osoa, burua izan ezik, eta arkume bat. Horrek esan nahi du arizain bat zela, bere zakurarenkin. **Ekaingo errepikaren proiektua asko ari da luzatzen. Nola dago unibertsitatean?**
Azken txanpan. Arduradunak osasun arazoak eta ekonomikoak izan zituen. Betera, erabiltzen zuten sistema zaharriak gelditu zen eta 2004ko apirilaren hasi zen sistema berria. Erabiltzen zuten sistema zaharriak gelditu zen eta 2004ko apirilaren hasi zen sistema berria. Erabiltzen zuten sistema zaharriak gelditu zen eta 2004ko apirilaren hasi zen sistema berria.

Eszenografia ere iruditakoa da Ekainen, ez irudirik bakarrik. Burtia egiten duenekoan koba euri asko sartzen da eta hortan sentitzen da. Hori ere sentitzen nahi duzue jendea. Isil-itilik erakutsi nahi dugu, bisitariak kobazuloan dagoela senti dezan, hotsik gabe. Bakotzak ahal duena ikusiko du lehen bistan. Argiztatuta egongo da irudi multzoak eta garrantzikoak erdi ilungaitan. Putzu handi bat egongo da eta horren gainera ipulian bideo bat botako da Ekaingo artea espikatuta. Zerbait bereiztasun adieraziko dira, lehen aldiari bisitariak nekez ikusiko zituenak. Eta orduan egongo du bigarren maila eta hor ikusiko du lehen ikusi ez dituenak. Bi itzuliko bisita izango da, lehen emozioziki eta bigarrena jakintzatik.

Zuek duela 40 edo 50 urte sentitutako nahi duzue beraz?
Aitaman gertatzen dena ez dugu nahi gertatzea. Oso erreplika ote egin dute. Hain bionteen sabaia bakarrik errepikatuta dute, besterik ez. Baina han hiru talde batera sartzen dira, 90 bisitari hiru gidatzailek, haruek batera hitzietan. Ez dakizu zertaz ari diren. Ez du emozioziki. Hori ez dugu nahi. Gure taldeak 18 lagunekoa izango da eta udan 20koak, baina talde bakarra. Eta ingeniariak bazeuden hitz eginda, keno sonoro bat sortuko da, horren azpian bakarrik entzuten dela ahotsa, ingurukoak ez, besteak beste, kalerik egin gabe.



EKAIN

«Bi itzuliko bisita izango da, lehen emozioziki eta bigarrena jakintzatik; talde txikiak izatea nahi dugu»

SORGINZULO

«Beluntzako Sorginzulo koban sekulako apaingailu pila agertu zen. Brontze garaioak»

DATUAK >

Jaioterria. Berastegi.

Jaioterria. 1932.

Ikasketak. Babolergoa Tolosako Eskolapioetan, Filosofia eta Teologia Gasteiz eta Donostian eta Biologia Madrilen.

Lanak. Hainbat aztarnategi aztertu ditu; Barandiaran laguntzaile; hertzaleak; artikulugile; Munde aldizkarian zuzendaria; Aranzadi lehendakaria; unibertsitate irakaslea... **Sariak.** Zientzia Fakultatea (1998), Lan Onari (2001), Euskadi Berheta Giza Zientziak (2003).

Eta kobazulo originalarekin zer gertatuko da?
Irekitia jarraituko du, baina talde txikiarekin, bertarriekin eta. Lanak sartuz. **Zein da Ekaingo altxorra?**
Zaldi multzoa. Alaman bionteen beoala eta Lascaux zonenetan, Ekain zaldietan bereizten da. Halako zaldi multzoa ez da beste non ez dagoen. **Ekain alde batera utzita, zein dira Euskal Herrian ditugun honelako beste altxorrak?**
Altxorri garrantzi handikoa da, Aian, Oriotri gertu. Altxorri irudi guzti ditu. Isuritzek hezurretan egindako gaitza ederrak ditu, baina irudi aldetik guzti du. Altxorri grabatuak ditu. Baina asko ditu leku estu-estuetan. Eta irudi asko daude biztaineren gainean eginda, orduan handik pasatu eta ukitzen dute. Altxorri irekia egongo balitz, dena galdiko izateke. Eta gero Santimamiñe. Lehen bisitatzen zen, baina orain ez. Eskolekoak jende asko pasatzen zen. Horrelako kobazuloak 18 urteko gorakomertu dira. Orduan hauek ez dute nahiko jasotzen, eta halako iruskarren jarduera kobazuloak... **Gero eta gehiago ezagutu, aurkitzeko gero eta gehiago falta dela iruditzen al zaizu?**
Beno, koba handietan ez, ondo niatu izan dira. Hori nekez auzi daitake zer bati. Baina izango dira ezagutzen ez diren kobak. Asko kasualitate bidez aurkitu ditugu. Baina Ekain margotu zuenak ez al zuten beste ezer margotu? Halako trebatasuna izanda, hain dotore pintatuta, hori bakarrik egin ari zuten? Zaila da hori azaltzea.

Askaldi ari zara arkeologia museo eskatzen.
Eskain ingururatu lili jauregi ederra dago. Hura berritu eta ondoan gupuzatzen historiaturro museo jarri nahi dugu.

TOLOSA > POLITIKA

Tolosa Bizirik: «Hemen gaude eta bagatoz»

Ekitaldia burutu zuten 'Eskubide zibil eta politikoen alde, apartheid ez!' lelopean



Dultzaineren donuek giroa zuten ekitaldia. I. GARCIA

I. GARCIA

Ekitaldi politikoa burutu zuten herenegun arratsaldean Tolosa Bizirik-ek. **Eskubide zibil eta politikoen alde, apartheid ez!** lelopean, udaldebaren aurrean, 40 lagun ingururen aurrean Antxon Izaguirrek eman zuen meza nagusia: «Hemen gaude eta bagatoz. Zuru-bertera Udala honetan egongo

garela. Horretarako prestaketa ari gara, eta lanean jarriko dugu». Izaguirrek gain imazek hitz egin zuen. Euskal Herriko «apartheid» egoera izan zuen lurriz, eta elkartrukako indarrak bitzeko dela luzatu zuten, abian dagoen oposizioa bideratzeko. Ekitaldia talde partaierik eta dultzainerok giroa zuten.

Foto Depilazioa
120€
240€
PROFESIONAL DEPENDIARIA
MAINTENIMENUA AINTA USKARIZ
DENTOTAL DEPENDIARIA

TOLOSASO INMAKULADA IKASTETXEA
ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK
• Erizaintzen HEZIKETA ZIKLOA.
• Farmazia.
GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK
• Diagnostiko Irudirik.
• Osasun Dokumentazioa.
• Gizarte Integrazioa.
AURREMATRIKULA: MAIATZA
Kondeko Aldapa, 5-B 20400 TOLOSA
Tel.: 943-673629 www.inmakuladatolosa.com

Unibertsitate eskaintza handia
Partidularien 188€
105€
Makelariak artez berretutako bitziketa 54€
Paseo de las Americas 332€
Gasteiz 487€
Madril 65€
E. BOKELI / AIAKOLASO

ZIZURKIL ▶ TXIRRINDULARITZA

Dorleta Zorrilla juniorra gailendu da II. Sari Nagusian

Laura Fernandez eta Naiara Telletxea izan ziren 2. eta 3.; Irene San Sebastian tolosarra lehena kadeteetan



Dorleta Zorrilla, Zizurkilgo helmuga zeharkatzen. N. URBIZU



Irene San Sebastian. N. URBIZU

NEREA URBIZU

Dorleta Zorrillak irabazi zuen, atzo, Zizurkilgo II. Sari Nagusia. Laura Fernandez eta Naiara Telletxeari gailendu zitzaizen esprinean. Hirugarrenak egin zuen lan gutzia ihesaldian eta horretaz baliatu ziren beste biak esprinean atzean uzteko. Eskualdeko lehena Irene San Sebastian kadetea izan zen, Belca taldeko tolosarra.

Mailei dagokienez, elitekoan Naiara Telletxea, Fatima Blazquez eta Cristina Alcalde izan ziren lehen hirurak. Junior mailan, berriz, Dorleta Zorrilla, Laura Fernandez eta Eider Mendizabal. Kadeteetan, Irene

SAILKAPENA ▶

Elite maila.

Izena	taldea
1. Naiara Telletxea	Bizkaia Panda
2. Fatima Blazquez	Odeco-Madrid
3. Cristina Alcalde	Bizkaia Panda

Juniorrak.

Izena	taldea
1. Dorleta Zorrilla	S. D. Ugeraga
2. Laura Fernandez	Odeco-Madrid
3. Eider Mendizabal	Luma

Kadeteak.

Izena	taldea
1. Irene San Sebastian	Belca
2. Catalina Rayo	Ceramicas Onda
3. Leticia Galan	Consacavi

San Sebastian tolosarra, Catalina Rayo eta Leticia Galan sailaktu ziren lehen hiru postuetan. Mendiko saria maila bakoitzeko lehen sailkatuek eraman zuten.

«Gogorrena Altzoko igoera»

Irene San Sebastianen ustetan, «gogorrena Altzoko igoera izan da, baina leku zelaietan erraza zen berreskuratzea».

Berastegiko Arantzazu Azpirozok —Gipuzkoako bigarren onena egin du elite mailan— azaldu zuenez, «haizea izan da gogorrena proba honetan», baina «gustura» ibili zela azpimarratu zion HIRZARI.

ALEGIA ▶ KIROLA



Ginkana, bi gurgipilen gainean

N. Urbizu ▶ Alegiako II. Kirol Astearren barruan antolatutako ginkana egin zuten atzoko goizean etxeko txikienek. 70 bat txirrindulari aritu ziren pedalak astintzen, herri osoan zehar, denon bistara agertuz. Bost kilometro inguru egin zituzten, kaskoak buruan, eta eskuekin ongi heldutako bizikleta hanken azpian. Ibilaldi lasai bezala antolatu bazuten ere, bazen azkarrago ibili nahi zuten taldetxoa ere. N. URBIZU

ANOETA ▶ GIZARTEA



'Pila-pila, patata tortilla...'

N. Urbizu ▶ Gazte talde polita bildu zen Anoetako Gaztetxera, VII. urtemugan antolatutako patata tortilla eta entsalada txapelketan parte hartuz. Bost bat talde zeuden sukaldatzen, bakoitza bere baliabideekin. Nola hala moldatu ziren haizeak suak itzali ez ditzen. Entsaladak ere itxurosoak egin zituzten. Sukaldean trebezia dutela erakutsi zuten batzuk. Ondoren, Gaztetxean jan zituzten prestatutakoak. Tortilei, usaina behintzat, gozoa zerien. N. U.

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Autoa. Renault Kangoo RXE DTI. 2000.koa. 88000 kilometro. Estrak. 943 69 71 94.

Furgoneta. Vito CD1 110. 2002. urtekoa. Kanpinera joateko prestatua. Telefono honetara deitu: 685 72 50 53.

Andoainen administrazio lanak egiten dituen enpresa batek telefono bidezko kobraketa kanpaina bat egiteko langile bat behar du

Eskatzen da:

- Telefono bidez eginiko lanetan (kobroak, salmenta, bezero arreta...) eskarmentua izatea.
- Erabiltzaile mailako informatika ezagutza.
- Kontabilitate ezagutza izatea baloratuko da.
- Lehenbait lehen lanean hasteko aukera izatea.

Eskaintzen da:

- Astelehenerdik ostiralera 6 orduko lanaldia, 15:00etatik 21:00etara.
- 2 hilabeteko lana, emandako errendimenduari arabera luzatu daitekeena.

Interesatuak 10:00etatik 13:00etara deitu 943 30 43 35 telefonora maiatzaren 30a baino lehen.

Villabonako Agroalde ekologikoan partzelak eskuratzeko, proiektuak aurkezteko epea irekitzen da.

- Baldintza pleguak Tolomendiko bulegoan eta Tolomendiko web orrian

www.tolomendi.net eta baita Biolurko bulegoetan daude nahi dituenarentzat.

- Proiektu bat aurkeztu behar da eskaerarekin batera.

- Eskaera eta proiektua aurkezteko epea ekainaren 1ean irekitzen da eta uztailearen 28an itxiko da.

- Eskaerak aurkezteko lekua Tolomendiko bulegoan izango da, Tolosan, Nafarroa etorbidea 6an.

Oharra: soilik nekazaritza ekologikoa egiteko proiektuak kontutan hartuko dira. Informazio gehiago:

Tolomendiko telefonoan 943 65 50 97

TOLOSA ▶ GERONTOLOGIKOA

«Heldugabe dago Udalak aurkeztutako aurreproiektua»

Ehunka lagun Gerontologikoaren aldeko plataformak deitutako manifestazioan

IMANOL GARCIA

Gerontologikoaren aldeko plataformak deitutako manifestazioan ehunka lagunek hartu zuten parte, atzo, Tolosako kaletan. «Itxaron zerrendei irtenbidea», «Gerontologikoa publikoa», «Ez gara maletak, pertsonak baizik», «Donostian ez, Tolosan bai», «Bildarratz entzun, herriari entzun» bezalako aldarrikapenak egiten zituzten manifestariek. Bukae-irakurritako idatzian, Tolosako Udalak aurkeztutako aurreproiektuari «herriarrok egindako lanari esker izan dela» iritzi zioten.

Gerontologiko berriaren proiektua ez dute oso argi ikusten plataformakoek. «Gure ustetan presakoa den eta heldugabe dagoen aurreproiek-



Manifestazioa, atzo, Pablo Gorosabel kaletik. I. GARCIA

tua aurkeztu digute», zioten, eta beraien kezkak agertu zituzten: «Finantziak ez du loturik. Publikoa edota pribatua

izango den ez dute zehazten. Ez da batere ziurra Diputazioaren esku-hartzea. Proiektua gauzatzerik balego, urte batzuk

pasatu arte ikusiko ez genukeen gerontologiko bati buruz ari gara hizketan».

«Lanean jarraituko dugu»

Azken argudio horren inguruan mintzatu ziren manifestazioaren antolatzaileak: «Eskualdean premiarik handien duen arazoari ez zaio irtenbiderik ematen. Oraintxe ditugun itxaron zerrendei buruz ari gara. Eta honi soluzioa eman behar zaio».

Plataformak lanean jarraituko duela azaldu zuen, «lan handia gelditzen baita oraindik». Lan hori aurrera ateratzeko manifestazioan bildutako laguntza eskatu zuen. Orain arte emandakoa ere eskertu zuten, eta bildutako 4.300 sinadura gogorarazi zituzten.

TOLOSA ▶

Landare eta lore eskaintza zabala, bere horretan

Azokako berrikuntzen artean, atzo, berbera loretuak eta basazainuriak

PABLO ALBERDI

Badirudi aurtengoa urterik onena izango dela Tolosako azokan beraien produktuak salgai jartzen dituzten hainbat sektoreentzat. Aipagarriko loreen saltzaileek, aurreko asteetan bezala, inoizko eskaintzarik zabalena dute loreontzietako landareetan eta moztutako loreetan. Ohiko alegria eta geranioez gain, arrosa-landareak, begoniak, surfiniak, lobeliak eta usain-loreak asko saldu ziren atzo.

Berrikuntzarik ere izan zen, jendearen jakinmina piztu zuten kolore askotako celosia izenekoak eta berbera loretuak, kasu. Eta, bitxikerien artean, basazainuriak (18,50 euro). Eskaintza mikologikoak ere bezeroak erakartzen jarraitzen du; lehenengo orduetatik, oso ondo saldu ziren 300 bat kilo ziza eta 100 bat kilo onddo.

ATZOKO AZOKA ▶

	merk.	gares.
Berdura plaza		
Geranioa	1,00	1,50
Begonia	5,50	-
Surfinia	1,50	2,20

Bertako produktuak		
Onddoa	16,00	30,00
Ziza	18,00	35,00
Tolosako Babar.	8,00	12,00

Produktu ekologikoak		
Kalabaza	1,60	3,04
Azenarioa	2,00	2,50
Ahuntz Gazta	3,00	-

TOLOSA ▶ KIROLA



Usabal, eskola kirolen topagune

N. Urbizu ▶ XXV. Eskolarteko Kirol Jokoak hasi ziren atzo Usabal kiroldegian. Mahai tenisa, xakea, saskibaloia eta herri kirolak landu zituzten, besteak beste. Gaur, berriz, 10:00etatik aurrera, gimnastika erritmikoa, boleibola, xakea, futbola, txirrindularitza eta pilota ikusi ahal izango dira. Hurrengo astean jarraituko dute. N. URBIZU

IBARRA ▶ SAN INAZIO AUZOKO JAIK



Auzotarrak biltzeko aukera

I. Garcia ▶ Ibarako San Inazio auzoko jaiak asteburuan ospatzen ari dira. Atzo adin guztikoentzako ekitaldiak izan ziren. Hauetan parte hartzeaz gain, mokadutxo bat hartzeko tartea ere izan zuten auzotarrek, giro ederrean. Gaur, aipatzekoak, eguerdian egingo den aizkolarien erakustaldia eta ondorengo herri bazkaria. I. GARCIA

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

Harpidedunei banatua ▶ 2006ko maiatzaren 28a, igandea ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA



goizez



arratsaldez



beroena

21

hotzena

15

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



hitza-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA

(zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. 08:30ean, mendi martxa. Kirol Astean.
Ibarra. Elkartasun Eguna antolatzeko bilera. Etzi, 19:30ean, Kultur Etxean.
Ibarra. Jai Batzordearen bilera. Etzi, 20:00etan, udalbatzar aretoan.
Leitza. 11:00etatik aurrera, XXVI. Eskulangintza Azoka. Kultur Astearen barruan.
Tolosa. Udaberri dantza taldearen 50. urteurrena antolatzeko bilera. Bihar, 20:00etan, egoitzan.

HITZALDIAK

Belauntza. *Telegantza.* Bihar, 17:00etan, Kultur Etxean.
Ibarra. *Globalizazio neoliberalaren aurkako borroka Euskal Herrian eta munduan.* Paul Nicholson. Bihar, 19:00etan, Gaztetxean. Maiatza Gorrian.

JAIK

Ibarra. San Inazio auzoa: 09:30ean, diana herriko dultzaineroekin; 10:30ean, txaranga; 12:00etan, Javier Elorriaga eta Unai Otaño aizkolaria, trikitixa eta bertsolaria; 14:00etan, bazkaria; 16:30ean, petardo-sorta. Izaskun auzoa: 17:00etan, sokatira lehia.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Ibarra. Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.
Leitza. Larraia M. I. Elbarren 95. 112.

Bihar
Leitza. Plaza, M. Elbarren 36. 112.
Tolosa. Azpiroz, M. L. Amaro, 9. 943 67 51 18.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Musikaz blai

TOLOSA ▶ Herri Musika Tresnen Topaketa kaleetan zehar eta Xabier Lizasoren kontzertu pedagogikoa, Musikaria egitarauaren baitan

IMANOL GARCIA

Musika herrikoia nagusitu zen atzo Tolosako Alde Zaharreko kaleetan. Dultzaineroen, albokarien, trikitilarien eta txalpartariaren doinuak entzun ziren Eduardo Mokoroa Udala Musika Eskolako antolatutako Musikaria egitarauaren baitan.

Herri Musika Tresnen Topaketa horretan instrumentu bakoitzak bere taldea zuen, eta hau kalez kale ibiltzen zen. Gero, tarteka, Alde Zaharreko zenbait lekutan elkartzen ziren, aurretik prestatutako piezak denen artean jotzeko. Ins-

trumentu guztiak batera entzunik, emanaldia bikaina zen. Iñaki Salvadorren gidaritzapean, hiru abesti jotzen zituzten: Kepa Junkeraren *Zirkinipez*, Juan Mari Beltranen *Bueltea* eta hirugarren bat doinu herrikoien nahasketarekin sortutakoa.

Bien bitartean, Xabier Lizasok kontzertu pedagogikoa eman zuen gurasoentzat eta haurrentzat Musika Eskolan. Piano aurrean eserita hainbat joko proposatu zizkien entzuleei, guztietan musika ardatz hartuta. Musika Eskolan uztailean izango diren udaleku musikalen aurrerapena izan zen.



Musikari guztiak tarteka elkartu ziren denen artean jotzeko. I. GARCIA



Albokarien saio bat, Korreo kalean. I. GARCIA



Xabier Lizaso piano-joleak ikuslegoa animatu zuen bere klasean. i. e.

AGURRAK ▶



Antzinako origarri polit bat nire bi iloba berezientzat. Maiatzaren 21ean eta 29an, zoriokan. Zuen izeba Izaskun.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker.

hitza
agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA
 2006 Harpidetza kobraketa kanpaina

▶ **egunero** 8 orrialdeko **kalitateko egunkaria, euskaraz**
 ▶ **uneoro** informazioa eskura www.tolosaldeko-hitza.info

KONTU KORRONTE bidez ordainduaz EROSOAGOA eta 2 ZATITAN ORDAINTZEKO AUKERA

txartel berriarekin abantailak!

beherapenak agurretan, eskeletan eta iragarki laburretan besteak beste

egunean 0,18 zentimoren truke etxean

Depilatzeko garaian arazoak al dituzu?

Ileak azal barruan, granoak, barizeak, alergia, dermatitisa...

BIODEPILAZIOA duzu modurik egokiena.

DEPILAZIO MODU BAT BAINO ASKOZ GEHIAGO

Garbie Zubiri BIODEPILAZIO Zentro Ofiziala

Herriko plaza, 10 behea - 20270 ANOETA
 Tel.: 943 65 05 13 - 647 96 19 23